

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala****Bakioko 2018ko Udal Aurrekontuaren behin betiko onespena (iragarkia 2018/01/04 Bakio).**

Bakioko Udalbatzak, 2017ko abenduaren 5ean egindako osoko bilkuran, 2018ko udal aurrekontu orokorra hasikera batean onartu eban. Gauzak horrela, espedientea jendaurrean azaldu zan, udal ediktu oholean, udaleko web orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ipinitako iragarkien bidez, 15 egun baliodun epean interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Alegazino-idazki bi aurkeztu diran ezkerro —batetik, Virginia Abio Ercoreca andreak eta seme-alabek eta, bestetik, Xabier Goitia Garay, aurkeztutakoak—, Bakioko Udalbatzak, 2018ko urtarrilaren 25ean egindako osoko bilkuran, alegazino horreei buruzko erabagia hartu eta 2018ko udal aurrekontu orokorra behin betiko onetsi dau.

Beraz, 2018ko udal aurrekontuaren atalburuen laburpena azaltzen da, beti be Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru-Arauaren 15.3 artikulua araberara.

**GASTUAK**

Atalburuak	Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
1	Beharginen gastuak	1.180.000,00
2	Ondasun-zerbitzu gastuak	1.713.593,10
3	Finantza gastuak	28.203,75
4	Ohiko transferentziak	143.547,70
5	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	81.335,67
6	Inbertsio errealak	553.005,09
7	Kapital transferentziak	0,00
8	Finantza aktiboak	3.606,07
9	Finantza pasiboak	535.971,16
	<b>GUZTIRA</b>	<b>4.239.262,54</b>

**SARRERAK**

Atalburuak	Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
1	Zuzeneko zergak	1.139.140,99
2	Zeharkako zergak	75.000,00
3	Tasak eta beste sarrerak	750.314,27
4	Ohiko transferentziak	1.854.689,27



Atalburuak	Kontzeptua	Zenbatekoa (€)
5	Ondare sarrerak	416.511,94
6	Inbertsioak inorengatze	0,00
7	Kapital transferentziak	0,00
8	Finantza aktiboak	3.606,07
9	Finantza pasiboak	0,00
	GUZTIRA	4.239.262,54

Erabagi honen aurka administrazioagazko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioagazko Auzien Salan, beti be argitalpena egin eta hilabete biko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dan biharamunetik zenbatzen hasita.

Bakion, 2018ko urtarrilaren 26an.—Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraiazarra